



HEZKUNTZA BERRIKUNTZA PROIEKTUEN DEIALDIA

HPB/PIE i3lab

2025-2026 aldia

1. DEIALDIAREN JUSTIFIKAZIOA

i3 hezkuntza ereduaren baitan, UPV/EHUn, hainbat erakunde programa garatu izan dira metodologia aktiboak eta berritzaileak sustatzeko, hezkuntza berrikuntzako talde oinarritzoei eta aurreratuei laguntzeko, irakasleen irakaskuntza garatzeko, irakaslana ebaluatzeko, eta bertako ikastegiak eta tituluak egiaztatzeko. Horretarako kudeaketa tresnak eta laguntza eta orientazio materialak sortu dira, eta ahalegin handia egin da elkarrekin eraikitzeko.

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) bidez, dei egiten die UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei aktiboki parte har dezaten i3 hezkuntza ereduaren garapenean. Bide horretan aurrera egiten jarraitzen dugu eta, beraz, irakasle taldeak aktibatzeke helburuarekin, HPB/PIE i3lab hezkuntza berrikuntza proiektuen seigarren deialdia argitaratzen dugu. Talde horien eginkizuna izango da iraunkortasun erronkak tituluetan txertatzeko lanak gidatzea, irakaskuntza-ikaskuntza estrategia aktibo eta kooperatiboen bidez, ikerketan oinarritutakoak, halako moldez, non egungo munduan etikoki eta eraginkorki aritzeko behar diren gaitasun konplexuak garatuko diren.

2. DEIALDIAREN HELBURUAK

Deialdi honetako helburuak honako hauek dira:

- Bultzada ematea i3 berrikuntza egitasmoak eta ibilbideak UPV/EHUren tituluetan txertatzeari.
- Irakasle taldeek berrikuntzarako duten gaitasuna indartzea, martxan jar ditzaten tituluetan egoki integratuko diren proiektu berriak.
- Sinergiak sortzea irakasle taldeen artean, ikastegietako tituluen barnean edo ikastegien artean, helburua izanik ibilbide egokiak sortzea gaitasun konplexuak garatzeko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko (GIH) konpromisoa betetzeko.
- Erronka sozial garrantzitsuetara bideratutako diziplina arteko GrAL eta MALen garapena erraztea.
- i3 hezkuntza berrikuntzaren emaitzak zabaltzea irakaskuntzaren ikuspegi akademiko batetik (SoTL).

3. HPB/PIE i3lab BERRIKUNTZA PROIEKTU MOTAK

Proiektu proposamenak egingo dira tituluaren ikuspegi global batetik, halako moldez, non denborarekin ibilbide bat sortuz joango den, GIHak eta gaitasun konplexuen garapena barne hartuko dituen, orain arte inplementatutakoak bezalako metodologia aktiboen bitartez: Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, Ikaskuntza Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza (Challenge Based Education-CBE), Ikerketan Oinarritutako Ikaskuntza (Research Based Learning-RBL) eta Kasuen Metodologia.



Kontua da puntualki eta bakartuta egiten den irakaskuntza berrikuntza gainditzea, eta berrikuntza estrategiko bat sortzea, helburu zehatz eta adostuak izango dituen eta bideragarria izango dena, ekintzei nahiz erabili beharreko baliabideei dagokienez, koordinatua eta denboran mailakatua, epe ertain eta luzera ikasleen ikaskuntza hobekuntza ebaluatzeko modua emango duena.

Graduetako koordinazioek, Ikastegi Kalitate Batzordeek –edo, hala badagokio, Titulazio Batzordeek– zeregin garrantzitsua dute testuinguru honetan titulu bakoitzari ezartzen zaizkion helburuak definitzeko orduan. Helburu horiek hainbat konpromiso mailatan bete ahal izango dira, deialdian parte hartuko duten proiektuetan planteatutako aplikazio eremuaren eta inplikazio motaren arabera. Hori dela eta, proiektu guztiak ikastegi Kalitate Batzordearen oniritzia jaso beharko dute.

Aipatzen den tituluaren ikuspegi globalak koordinazioa sustatu nahi du ikastegi eta tituluaren berrikuntza taldeen artean. Deialdi honen helburua titulu bakoitzean ibilbide curricularren konfigurazioa bultzatzea da, bertan, egoki iritzitako proiektu guztiak lekua izango lukete modu koordinatu batean.

Hainbat prototipo aurkezten dira, praktikan jarduteko modu zehatzak ikustarazten lagundu nahi dutenak (1. taula).

1. taula. Proiektuen aplikazio eremuen eta inplikazio moten prototipoak

1 Prototipoa: EREIN

Proiektu hauen helburua da curriculumean ongi definitutako **GIH** bati edo gehiagori lotutako gaiak txertatzea, **irakasgai baten** esparruan. Irakasgai hori arrunta izan daiteke, edo izan daitezke ere curriculumeko praktikak, GRALak edo MALak. Kontua da i3 orientazioa sartzeko irakasgai horren kredituen **% 10ean gutxienez**. Irakaskuntza metodologiak **aktiboak eta eraldatzaileak** izango dira; hau da, aldaketak eragingo dituzte gure ikasleen pentsatzeko eta sentitzeko moduan, eta **zeharkako gaitasun** baten edo batzuen garapena bultzatuko dute.

Proiektuak etorkizuneko ibilbide curricularren abiapuntua izan daitezke.

Lehentasuna izango dute irakasgaiaren irakaskuntza talde guztietan gauzatzen diren proposamenek (beraz, haren irakaskuntza gidan agertuko dira).

2 Prototipoa: ERNATU

Curriculumean ongi definitutako **GIH** bati edo batzuei lotutako gaiak sartzeko xedea duten proiektuak, **gutxienez bi irakasgaien esparruan** koordinazio ekintzak abian jarriko dituztenak. Irakasgai horiek arruntak izan daitezke, edo izan daitezke ere curriculumeko praktikak, GRALak edo MALak. Kontua da i3 orientazioa inplementatzea gutxienez irakasgai horien kredituen **% 30ean**. Irakaskuntza metodologiek **aktiboak eta eraldatzaileak** izan beharko dute; esate baterako, CBL edo RBL. Era berean, garapen iraunkorrari lotutako erronka bati lotuta egongo dira, eta **zeharkako gaitasun** baten edo batzuen garapena sustatuko dute.

Lehentasuna izango dute, halaber, irakasgaiaren irakaskuntza talde guztietan gauzatuko diren proposamenek, eta, beraz, dagozkion irakaskuntza gidetan islada izango dutenak.

3 Prototipoa: LORATU

Proiektu hauen helburua da gradu baten barruan ikerketari lotutako gaitasun konplexuen garapena finkatzea, denboran mailakatutako **ibilbide** ezaguterraz baten bidez, **GIHekin** erlazionatutako erronken inguruan.



Kasu honetan, irakaskuntza taldeek i3 berrikuntza bat planteatuko dute, irakasgaien sekuentzia batean, eta gutxienez i3 ikaskuntza egoera sartuko dituzte tituluaren zehar. i3 orientazioa **gutxienez irakasgai horien kredituen % 30ean** txertatu nahi da, eta tartean egon daitezke Curriculumeko Praktikak, GRALak edo MALak. Irakaskuntza metodologiek **aktiboak eta eraldatzaileak** izan beharko dute; esate baterako, CBL edo RBL. Era berean, garapen iraunkorrari lotutako erronka bati lotuta egongo dira, eta **zeharkako gaitasun** baten edo batzuen garapena sustatuko dute.

LORATU proiektua luzatu ahal izango da, baldin eta hura inplementatzeko plangintzan elkarren segidako hainbat ikasturte biltzen dituen denborazko sekuentzia bat aukeratzen bada eta berrikuntza ikasle talde baten ibilbide akademikoan inplementatuko dela justifikatzen bada.

Ikasturte bakoitzean gutxienez irakasgai bat —GRALa eta MALa barne hartuta— jasotzen duten proposamenek izango dute lehentasuna. Lehentasuna izango dute, halaber, irakasgaien irakaskuntza talde guztietan gauzatuko diren proposamenek, eta, beraz, dagozkion irakaskuntza gidetan agertuko direnek.

Taldeek egoera aztertuko dute alde aurretik, eta curriculum ibilbidea definituko dute. Arruntena titulazio bakoitzeko mota honetako proiektu bakarra inplementatzea izango da, baina, kasuak kasu, posible izango da titulazio batean bat baino gehiago egotea, beti ere, horien arteko artikulazioa eta integrazioa lantzen bada.

4 Prototipoa: UZTATU

GIH bat edo batzuk curriculumean erabat txertatzen direla eta zeharkako gaitasun bat edo batzuk **diziplinartekotasunez** garatzen direla baieztatzeko proiektuak dira hauek. UPV/EHUko titulu edo ikastegi bat baino gehiagoko eta/edo beste unibertsitate batzuetako.

Irakasle taldeek proiektuaren xede diren GIHekin lotutako erronkak sustatuko dituzte, eta inplikaturako ikasleek erronkak diziplinartekotasunez landu beharko dituzte, CBL edo RBL ikuspegi batetik. i3 orientazioa **gutxienez irakasgai horien kredituen % 30ean** txertatu nahi da, eta tartean egon daitezke Curriculumeko Praktikak, GRALak edo MALak.

Bereziki baloratuko dira diziplinarteko GRALak eta MALak eginez amaitzen diren proiektuak.

GRALen eta MALen kasuan, proiektuan parte hartzen duen irakasle bakoitzak gutxienez GRAL edo MAL bat zuzendu beharko du.

5 Prototipoa: ONDU

Proiektu hauen bidez hezkuntza berrikuntzako proiektuak instituzionalizatu eta finkatu nahi dira, baldin eta horietan **GIH** bat edo batzuk curriculumean erabat txertatzen badira eta **diziplinartekotasunez zeharkako gaitasun** bat edo batzuk nabarmen lantzen badira. Proiektu hauetan partaide izango diren irakasle eta ikasleak titulazio desberdinetakoak izango dira edo/eta UPV/EHUko ikastegi desberdinetakoak edo/eta beste unibertsitate batzuetakoak edo/eta lanbide heziketako zentroetakoak. Prototipo horren barruan hiru modalitate aurreikusten dira:

1. **A modalitatea:** UZTATU Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak finkatzea. Proiektu horiek orain arte egindako bidea eta lortutako emaitzak erakutsi beharko dituzte, eta garapen edo aurrerapen plan bat proposatuko dute, i3 estrategiaren esparruan, proiektua instituzionalizatzeari eta finkatzeari begira.
2. **B modalitatea:** hezkuntza berrikuntzako proiektuak martxan jartzea, UPV/EHUko errektoreordetza baten ustez erakunderako estrategikoak direnak.



Ez da beharrezkoa proiektuak lehendik ibilbide landua izatea UZTATU modalitateko HBP/PIE i3lab proiektuetan, baina kasuan kasuko organoaren (errekoretzaren) ziurtagiria izan behar du proiektua estrategikoa dela egiaztatzeko.

3. **C modalitatea:** Hezkuntza berrikuntzako proiektuak martxan jartzea UPV/EHUko zentroyen edo/eta titulazioen eta lanbide heziketako zentro edo/eta titulazioen artean, proiektuaren helburua izanik II. Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategia (2022-2026), hau da, unibertsitateko prestakuntzaren eta lanbide heziketako prestakuntzaren arteko lankidetzaren sendotzea. Edozelan ere, i3 hezkuntza ereduak izan beharko dute oinarri.

Irakasle taldeek proiektuaren xede diren GIHei lotutako erronkak sustatuko dituzte, eta ikasleek erronkak diziplinartekotasunez landu beharko dituzte CBL, RBL edo S-L ikuspegitik, eta horretan guztian oinarrituta diziplinarteko GRALa edo MALa edo beste lan akademiko bat egin beharko dute.

ONDU proiektua luzatu ahal izango da, baldin eta bere garapenak deialdiari dagokiona baino iraupen luzeagoa izango balu eta proiektuaren proposamenean behar bezala justifikatzen bada.

GRALen eta MALen kasuan, proiektuan parte hartzen duen irakasle bakoitzak gutxienez GRAL edo MAL bat zuzendu beharko du.

Egiten diren GRALak eta MALak UPV/EHUko ikasleen kongresuan aurkeztu ahal izango dira: "Gure lanek mundua eraldatzeko balio dute"

4. HPB/PIE i3lab BERRIKUNTZA TALDEEK ETA HAIEN PROPOSAMENEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Taldeko kideak Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektua ezarriko den, gutxienez, irakasgaibateko edo GRAL/MAL bateko irakasle izango dira. Pertsona hauek izango dira lan talde eragilea osatuko dutenak eta, beraz, eskaera aurkeztu dutenak. Gainera, taldean kolaboratzaileak egon daitezke, esate baterako, irakasgaietako ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, kanpoko profesionalak, eta beste unibertsitate edo hezkuntza maila batzuetako irakasleak. Pertsona hauek zeregin konkretuen ardura izango dute proiektuaren garapenean zehar.
- Taldearen koordinatzaileak irakasle kontratatua izan beharko du, UPV/EHUrekiko lotura bermatzeko proiektuaren iraupena baino txikiagoa izango ez den denboraz. Gainera, pertsona hori DOCENTIAZ programan parte hartutakoa izango da, 60 puntuko edo hortik gorako ebaluazioa lortuta. Salbuespen gisa, bi koordinatzaile egon ahal izango dira proiektu batean, gehienez ere, baldin eta proiektu hori behar bezala garatzeko beharrezkoa dela justifikatzen bada.
- Ahal bada, taldeen osaera parekidea izango da, gizon-emakume kopuruei dagokienez. Hori ezin denean, baldintza ez betetzeko arrazoia azaldu beharko da.
- Taldeko kide bakar batek ere ezin izango du parte hartu deialdi honen (2025-2026) eskaera batean baino gehiagotan beren kargu akademikoa dela eta proiektuan egon behar dutenak izan ezik. Egoera berezi horietan, pertsona hauek bi proiektuetan egoteko aukera izango dute.

Eskaera guztiek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:



- Deialdian parte hartu nahi duten proiektu guztiek ekarpen bat egin behar diote gure unibertsitatearen hezkuntza berrikuntzari, eta lerrokatuta egon behar dute UPV/EHUren Plan Estrategikoarekin (2022-2025), haren helburuetako baten garapenerako ekarpena eginez.
- Proiektu hauen azken helburua ikasleen ikaskuntzan ondorio positiboak eta egiaztagarriak izatea da. Zehazki, GIH bat edo gehiago curriculumean txertatzea proposatuko dute, zeharkako gaitasun konplexuen garapena ahalbidetuko duten metodologia berritzaileen bidez.
- Deialdira aurkeztutako proposamenek honako hauek aurkeztuko dituzte: berrikuntza xedearen definizioa eta haren aplikazio eremua, exekuzio plan bat, eta inplementazioaren emaitzak bildu eta aztertzeke mekanismoaren deskribapena.
- Proiektu guztiak bat etorriko dira **SoTL**⁸ orientazioarekin; hau da, ikerketan eta esperimendatuz kontrastatuz oinarritutako irakaskuntza garatuko dute, abiapuntu harturik bibliografia zientifikoak arlo horri egiten dizkion ekarpenak, ebidentzia empirikoa sortuz, emaitzen jasotzea sistematizatuz eta emaitza horiek ingurune akademikoetan zabalduz (aztergai den diziplina/tematikaren irakaskuntzaren arloan garrantzitsuak diren batzar eta jardunaldi zientifikoak, edo aldizkari garrantzitsuetan argitaratzea, berdinek berrikusiak izan ondoren).

5. ESKAERAK IZAPIDETZEA

Eskaera proiektuaren koordinatzaileak aurkeztuko du, eta, aldi berean, hezkuntza berrikuntza ezarriko den ikastegiaren edo ikastegien kalitate batzordeen oniritzia eduki beharko du.

Prototipo guztien eskaera deialdi honetan proposatutako 1. eranskineko ereduari egokituko zaio, eta bertan eskatutako datu guztiak aurkeztu beharko dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 e) artikuluan eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakian (UPV/EHUrekiko harremanak modu elektronikoa izateko interesa duten pertsonen eta bertan zerbitzuak ematen dituzten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoa buruzko instrukzioa onartzen duena) ezarritakoaren arabera, eskaera UPV/EHUren erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da, <https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico> URL helbidean, eta eskaera **Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuari (SAE/HELAZ)** zuzenduko zaio, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzaren barruan. Horretarako, hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenpe erabiltzaile ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Tinbrearen Fabrika Nazionalaren Ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, sektore publikoko edozein erakunderen erregistro elektronikoa aurkeztu ahal izango da, eta, salbuespen gisa, aurrez aurre aurkeztu ahal izango da UPV/EHUko erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan. UPV/EHUko erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, espediente administratibo elektronikoa sartzeko, eta originalak interesdunari itzuliko zaizkio, alde aurretik funtzionarioaren aurrean identifikatuta eta egintza hori egiteko berariazko baimena emanda, UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin bat etorruta, horren

⁸ <https://www.ehu.es/eu/web/eurosotl-2019/aurkezpena>



bidez jarraibidea onartzen baita, gai hauen inguruan: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak, eskaerak, idatziak eta bestelako komunikazioak funtzionario gaituen bidez aurkeztea UPV/EHU, eta funtzionario gaituen erregistroa.

Eskaerak aurkezteko epea, **60 egun natural** izango dira, deialdia Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren webgunean eta campusetako errektoreordetzen iragarki elektronikoen tauletan (EHUtaula) argitaratzen den egunetik kontatzen hasita (bat etorriko dira argitalpen data eta deialdiaren sinadura data.)

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hamar egun natural igarota, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eskaeren zerrenda argitaratuko du (ondo betetako eskaerak eta datuak faltan dituztenak) bere webgunean eta campusetako errektoreordetzen iragarki elektronikoen tauletan (EHUtaula). Eskatzaileek hamar egun natural izango dituzte, zerrenda argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, dokumentazioa osatzeko. Epe horretan falta den dokumentazioa aurkezten ez duten eskaerak atzera botako dira.

6. EBALUAZIO PROZESUA ETA EBAZPENA

Lehiaketan onartutako proposamenak sailkatu eta ebaluatu egingo dituzte zeregin horretarako sortuko diren batzordeek, eta proiektu bakoitzaren ebaluazioa bikoteka egingo da. Titulu bati lotutako proposamen bat baino gehiago badago, dagozkion Kalitate Batzordeei eta Titulazio Batzordeei proposamenaren egokitasunaz kontsultatu ahal izango zaie, eta alde guztiak bildu ahal izango dira, taldeen arteko elkarguneak eta sinergiak bilatzeko, tituluan i3 ibilbide bat definitzeko.

Ebaluazio Batzordeak balorazio txosten bat egingo du, Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordeak kontuan hartuko duena laguntzak jasoko dituzten proiektuak hautatzeko orduan, baita laguntzen kopuruak zehaztean ere.

Laguntzak jasoko dituzten proiektuak aukeratzean, aintzat hartuko dira 1-5 irizpideetan (2. taula) lortutako balorazioak, erabilgarri dagoen aurrekontua eta proiektuaren egokitasuna tituluen eta ikastegiaren beharren arabera. Gainera, ahaleginak egingo dira HBP/PIE i3lab proiektuak UPV/EHUren ikastegi eta tituluen artean banatzeko, aurreko deialdiak ere kontuan hartuta.

2. taula: · HBP/PIE i3lab proposamenak baloratzeko irizpideak

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak gehien jota
1	<p>Proiektuaren justifikazioa: beharra eta egokitasuna, lortu nahi diren helburuak, GIHen deskribapena eta horiek txertatzeko justifikazioa, zeharkako gaitasunen deskribapena eta horiek txertatzeko justifikazioa, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan barneratuko dituen hobekuntzen deskribapen zehatza.</p> <p>ONDU prototipoaren proiektuetarako, aurrekoaz gain, honako hauek ere zehaztu beharko dira:</p> <p>A modalitatea. Aurretiko ibilbidea: aurretik garatutako hezkuntza-berrikuntzako ibilbidearen deskribapena, lorpenak eta/edo lortutako emaitzak</p> <p>B modalitatea. Interes estrategikoa: Proiektuaren interes estrategikoaren deskribapena eta justifikazioa.</p> <p>C modalitatea. Unibertsitatea-Lanbide hezkuntza proiektuak Interes estrategikoaren nondik norakoa eta arrazoinamendua.</p>	30



2	Proiektuaren irismena prototipoarekin bat etorrira: irakasgaiak, modulu/diziplinen taldeak, titulua edo tituluak (taldeak bere gain har ditzakeen irakaskuntza taldeak adierazita) eta proiektuan berdiseinatuko diren curriculumaren ECTS kredituen kopurua.	10
3	Proiektua garatzeko proposamena: metodologiaren egokitasuna jadanik argitaratutako ebidentzian oinarrituta (literaturaren erreferentziak eman beharko dira), egin beharreko ekintzen deskribapen zehatza eta horien koherentzia planteatutako helburuekin, egikaritzea plana kronograma baten bidez, eta egin beharreko ekintzen arduradunak.	30
4	Proiektuaren inplementazioaren ebaluazioaren diseinua: proiekturako diseinatutako ebaluazio sistemaren deskribapena, proiektuaren emaitzak ebaluatzeko aukeratu diren adierazleen egokitasuna, informazioa biltzeko mekanismoa eta emaitzak aztertzeko prozedurak.	25
5	Taldearen ezaugarriak: alde zurrerako prestakuntza edo esperientzia, bakarkakoa edo taldekakoa, GIH garapenean, hezkuntza berrikuntzan eta zeharkako gaitasunetan, eta kolaboratzaileen ekarpena.	5

Laguntzak Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordearen erabaki baten bidez adjudikatuko dira, **hiru hilabeteko** epean gehienez, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Erabakiaren kontra berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu erabakiaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

7. PROIEKTUEN GARAPENA ETA JARRAIPENA

Diruz lagundutako proiektu bakoitzak harremanetarako pertsona bat izango du SAE-HELAZen proiektua garatzen laguntzeko. Era berean, Graduetako koordinatzaileei, Kalitate Batzordeei eta Titulazio Batzordeei beren ikastegi eta tituluetan garatzen ari diren HBP/PIE i3lab proiektuen berri emango zaie.

Proiektuaren fase bakoitzaren amaieran, nahitaezkoa izango da mugarri bat aurkeztea eGelapi plataformaren bidez, proiektu bakoitzaren koordinatzaileek hura eskuratzeko aukera izan dezaten. Mugarri horiek ezarritako epeetan ez entregatzeak, emandako dirulaguntza etetea ekar dezake.

Mugarri horiek entregatzeak oinarri ditu deialdiaren beraren bi helburu:

- Proiektu bakoitzean adierazitako helburuen jarraipena egitea, eta egiaztatzea bat datozela i3 hezkuntza ereduarekin.




- Ikastegietako titulazioen artean, ikastegien artean edo/eta unibertsitateen artean sinergiak sortzea.

Proiektuak 1. irudian zehazten den eskemari jarraikiz egingo dira. Ondoren azaltzen dira fase horien hurrenkera eta nondik norakoak, fasea amaitzean aurkeztu beharreko mugarrria eta bete beharreko prozedura:

- (1) Curriculum txertaketako ekintzak **diseinatzeko eta planifikatzeko fasea**. Fase amaieran, 13 irakaskuntza gidak edo/eta ikasle-gidak idatziko dira; proiektuen lehenengo mugarrria izango dira (**1M**). Txosten bat burutu beharko da irakaskuntza gidetan edo/eta ikasle-gidetan eginiko aldaketak azalduz. Entregatzeko azken data 2025eko uztailaren 24a izango da.
- (2) **Inplementazio fasea**. Diseinuak praktikan jarriko dira, eta jarraipen txosten bat egingo da ebidentziak bilduta, eta ordura arte egindako gastuen memoria ekonomikoa (**2M**). Txostena ereduari jarraikiz egin beharko da (eGelapin eskuragarri) eta eGelapira igoko da. Lehen lauhileko irakasgaiak dituzten proiektuak entregatzeko azken eguna 2026ko urtarrilaren 31 izango da, eta bigarren lauhileko irakasgaiak dituzten proiektuak entregatzeko azken eguna, berriz, 2026ko uztailaren 1a. Ebaluaziorako aurrez aurreko saioa egingo da, eta indarreko deialdian dirulaguntza izan duten proiektu guztietako koordinatzaileak egongo dira: parekoen artean aztertu dituzte txostenak elkarrekin zehazteko proiektuaren indarguneak eta hobetu beharrekoak.
- (3) Inplementazioaren **emaitzak aztertze fasea** eta egindako gastuen memoria ekonomikoa. Analisi hori hirugarren mugarrria izango da (**3M**). Mugarrri honetan bi dokumentu eskatuko dira:
 - a. Txosten idatzia ereduari jarraikiz egin beharko da (eGelapin eskuragarri) eta eGelapira igoko da. Txostena aurkezteko azken eguna: 2026ko abenduaren 18a.
 - b. Poster digitala, garatu den hezkuntza berrikuntzako proiektuaren ideia nagusiak bilduko dituena (izenburua, proiektuaren kodea, lan taldea, helburuak, metodologia eta emaitzarik garrantzitsuenak). Posterrak SAE/HELAZek hezkuntza berrikuntzako proiektuak bilatzeko tresnan argitaratuko dira. Txostena aurkezteko azken eguna: 2026ko abenduaren 18a.

Proiektuek laguntza izango dute emaitzak zabaltzeko barnean (titulua, ikastegia eta UPV/EHU) eta kanpoan (ekarpenak batzarretan eta argitalpen zientifikoetan).

Proiektuak deialdia erabakitzen denean hasiko dira diseinatzen, eta 2026ko abenduan amaituko dira. Hilabete horietan lehen aipatutako faseak burutuko dira.



Irudia: HBP/PIE i3lab proiektuen faseak: diseinua, inplementazioa, emaitzen bilketa eta azterketa, eta difusioa

8. PUBLIZITATEA

Informazio saioak egingo dira campus bakoitzean, deialdi honen xehetasunak ezagutzera emateko, eta horren difusio egokia bermatuko da, prozedura hauek erabilia gutxienez:

- Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren webgunea argitaratzea.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Errektoreordetzen iragarki elektronikoaren tauletan (EHUtaula) argitaratzea.

9. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA FINANTZAKETA BALDINTZAK

Deialdi honetan i3 proiektuetarako aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira helburu bererako finantzatzen dituen beste edozein diru-laguntza edo kopururekin. Urteko aurrekontua zehazteko orduan, kontuan hartuko da Programa Kontratuari urte horretan esleitu zaion kopurua.

Diru-laguntza eskaera behar bezala justifikatuko da urte natural bakoitzerako planifikatutako ekintzen kostuaren arabera. Laguntzak ez dira izango, inola ere, kopuru hauek baino handiagoak:

- Proyectos EREIN: 750€
- Proyectos ERNATU: 1600€
- Proyectos LORATU: 2550€
- Proyectos UZTATU: 3600€



- Proyectos ONDU: 6000€

Gastuak deialdi honek hartzen dituen bi urte naturalen barruan (2025 eta 2026) egin beharko dira.

Dirulaguntzarekin honako hauek ordainduko dira:

- Material suntsikorra (2026ko uztailaren 31 arte erosi ahal izango da material suntsikorra)
- Proiekturako prestakuntza espezifikoak, ikasleekin eginiko jarduerak eta egitasmoak (prestakuntza hori FOPU-UIPREk eskaintzen duenean izan ezik)
- Software lizentziak, proiektua (programak dagoeneko UPV/EHUK eskaintzen dituztenean izan ezik)
- Koordinatzeko bileren gastuak
- Emaitzen aurkezpena batzarretan eta beste diru-laguntzarik ez duten unibertsitate irakaskuntzari lotutako ekitaldietan, eta emaitzen argitalpena

Fakturek UPV/EHUn kontabilitate arauak beteko dituzte:

- Erosketak UPV/EHUK esleitutako enpresen bidez egingo dira, ez bada beste enpresa batek eskaintako prezio merkeagoa dela edo beste enpresa batek ematen duen zerbitzua proiekturako hobea dela.
- Faktura 300 eurotik gorakoa bada, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko da, bai eta hornitzaileak egindako aurrekontua eta III. eranskina ere (sinatua) (eranskina eGelapin eskuragarri).
- Bidaiak eta ostatua agentzia bidez kontratatu daiteke edo norberak egin izapideak, baina ostatuko gastuak, estatuan, ezin izango ditu gainditu 130 euroak gaueko (beste herrialde batzuetarako ikusi 2024ko otsailaren 23ko arautegia, UPV/EHUKo zerbitzu ordainei eta protokolo eta ordezkartza gastuei buruzko zehaztapenei buruzkoa).
- Biltzarreko fakturak eta dietak ordaintzeko, lizentzia eta bertaratze agiria aurkeztu beharko dira, edo faktura biltzarrera joan aurretik ordaindu behar baldin bada, biltzarrera joateko konpromiso idatzia.

Deialdiak ez ditu finantzatu:

- UPV/EHUtik kanpoko langileen mugikortasunari lotutako gastuak
- Material inbentariagarria edo funts bibliografikoak. Horretarako beste bide batzuk erabili beharko dira.

10. LAGUNTZAK JASOKO DITUZTEN TALDEEN

KONPROMISOAK

i3 taldeek konpromisoa hartuko dute koordinazio bileretara joateko eta beren emaitzak UPV/EHUn i3 proiektuak ezagutarazteko egingo diren jardunaldietan aurkezteko.

Proiektuaren koordinatzaileak lantaldearen funtzionamendu egokia bermatuko du. Horren harira, proiektuak garatu bitartean taldekideen artean gertatzen diren altak eta bajak eGelapi bidez eskatu beharko dira, dagokion eskabidearen eranskina igota.

Gainera, koordinatzailea (edo haren ordezkari den pertsona) arduratuko da jarraipena egiteaz, eta proiektuaren garapenaren berri emateaz, eskatuko zaion moduan.

Taldearen koordinatzailea arduratuko da ere kontabilitate kudeaketaz.

[Alderdi etikoak HPB/PIE i3lab proiektuetan](#)



Hezkuntza berrikuntzako jarduera batek, printzipioz, ez du inolako Etika Batzorderen ebaluaziorik behar. Hala ere, SoTL filosofiaren esparruan, irakasleak ikerketa-ikuspegi bat eman behar dio jarduera horri, biltzarretara eramanez edo lortutako emaitzak argitaratuz, beste irakasle batzuen artean jarduera horretan lortutako ezagutzak eta onurak zabaltzeko asmoarekin. Kasu honetan, irakaskuntzan lortutako ikasleen datuak ikerketarako erabiliko dira, zabaldu edo argitaratu nahi baitira. Horretarako, ezinbestekoa da irakasleak ikasleen baimena eskatzea bere datuak ikerketan erabiltzeko. Jarduteko moduari buruzko argibideak esteka honetan zehazten dira: <https://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/i3-laborategia-2023-2024/alderdi-etikoak>

11. DIRULAGUNTZA ITZULTZEKO ARRAZOIAK

Dirulaguntza emateko baldintzak bete ez direla egiaztatzen bada, jasotako kopuruak itzuli beharko zaizkio nahitaez UPV/EHUko Zerbitzu Nagusiari.

12. PROIEKTUEN ZIURTAPENA ETA DIFUSIOA

Ziurtapena. i3 proiektuetan aritu den irakasle bakoitzari, programaren eskakizunak betez gero, parte hartu izanaren egiaztagiria emango zaio, Ebaluazio Batzordeak mugarri bakoitzean entregatutako txostenak baloratu ondoren. UPV/EHUko kide ez diren taldekideek dagokion proiektuaren koordinatzaileen akreditazioa jasoko dute.

Proiektuen emaitzen difusioa. Behin mugarri guztiak aurkeztuta, Ebaluazio Batzordeak aztertuko du unibertsitateko kideentzat interesgarriak izan daitezkeen proiektuen emaitzak zabaltzeko aukera, egoki iritzitako baliabideen bitartez.

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak diru-laguntza jaso duen taldeari eskatu ahal izango dio prestakuntza, sentsibilizazio edo hedapen saioetara joateko. Gainera, UPV/EHUK proiektuak eta haien emaitzak erabili ahal izango ditu bere ekintzetan, sentsibilizazio kanpainetan eta urteko jardueren memorian.

AZKEN XEDAPENA

Deialdi hau araututa dago EAEko Ogasunaren Antolaketa eta Eraketa Legearen bidez, VI. tituluak jasotakoaren bidez bereziki, EAEko administrazio publikoaren laguntzen eta diru-laguntzen araubideari dagokionez.

Deialdia eta haren Oinarriak, eta erator litezkeen administrazio ekinbide guztiak, inpugnatu egin ahal izango dira urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio Ordenari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera.

Leioa, 2024ko abenduaren 11

Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea

Laura Vozmediano Sanz